

Eskolaz kanpoko jarduerak 24/25

Zirkular honetan duzue datorren ikasturtean ikasleei eta gurasoei eskainiko zaizkien eskolaz kanpoko jardueren informazioa. Izena emateko, zirkularraren azkeneko orrian dagoen inprimakia bete beharko duzue maiatzaren 29a baino lehen.



HH 4koak Arotz Enean

Zeinen ondo egon garen astelehen eta asteartean Kometa, Txiba eta Txotxongilo taldeetakoak gure baserriko lehen egonaldian. Pozik eta gustura joan eta itzuli gara. Datorren ikasturtean... BERRIRO!



Desgaitasunaren inguruan hitzaldia

Asteazkenean adimen desgaitasunaren inguruko hitzaldia jaso genuen LH 6ko lagunok Atzegi elkartearen eskutik. Naroak NI=ZU programa aurkeztu zigun, adimen desgaitasuna duten pertsonak lan munduan sartzen laguntzen dituen programa. Oso interesgarria izan zen!



Merienda-tertulia

LH 6ko ikasle eta guraso ugari bildu ginen atzo Teknoizek antolatutako merienda-tertulian! Oso modu dinamikoan aritu ginen teknologia berrien eta, bereziki, smartphoneen erabileraren inguruan, eta oso parte-hartzaile aritu ziren haur eta helduak! Lehen merienda-tertuliaren balorazio oso positiboa egiten dugu!



Palestina gertutik ezagutzen

DBH 3ko Adierazpen Grafikoko ikasleok UNRWA elkartearen bisita jaso dugu aste honetan, eta Palestinako egoeraren berri eman digute. Talde dinamika baten bidez lurraldearen inguruko gogoeta egiten lagundu digute, eta Euskal Herrian bizi den palestinar baten testigantza ere jaso dugu. Amaizeko, Lekue artistak artibismoaz hitz egin digu, eta ekainean egingo ditugun saioetan artibismorako produktuak sortuko ditugu!



DBH 4koen ikasbidaia

DBH 4ko ikasleok Kataluniara bidaia egin dugu aste honetan! Ikastolan elkarrekin egin dugun bide luze bati amaiera emateko modu ezin-hobeia izan da, eta Cala Canyelles eta inguruak ezagutzeko aukera izan dugu gainera!



Hamlet Hatxis bihurtuta

Batxi 1eko Literatura Unibertsaleko ikasleok Shakespeareren "Hamlet" lana irakurri eta gero, klasiko honen berregokitzapena egin dugu: Hamlet Danimarkako printzea Hatxis gotizeneko narkotrafikatzaile bihurtu dugu. Azala aldatuta ere, antzerki honetan ohiko gaiak agertu dira: Eromena, Mendekua, Zalantza, Borere gosea, Azpikeria eta, noski, Heriotza.



Iritsi da Herri Urrats!

Igande honetan ospatuko da iparraldeko ikastolen beste handia, Senperen. Aurten jasotzen den babes ekonomikoa Beskoitzen ikastola bat eraikitzeke erabiliko da, eta egun osoko egitarau oparoa prestatu dute guztiontzat. Aste honetan ikastola apaindu eta giroze-lanetan aritu gara, gainera. Eman babesa iparraldeko ikastolei eta euskarari!!!



OHARRAK / AGENDA:

- Ikastolaren Eguna: Maiatzak 18, Egitaraua.
- Tantak eta Ikastolako poltsak: Denda Ategorrietan (maiatzak 13 eta 15, 16:30) eta Soroan (maiatzak 14-16, 16:45).
- Udako egonaldiak: [Zirkularra](#) eta [izen-ematea](#).
- HH4-5: Bakarkako guraso bilerak. [Zirkularra](#).
- LH1: Hiru eguneko egonaldia Barriara. Maiatzak 29-31. [Zirkularra](#).
- LH2: Hiru eguneko egonaldia Arantzara. Maiatzak 22-24. [Zirkularra](#).
- LH3: Hiru eguneko egonaldia Arotz Eneara. Ekainak 3-5. [Zirkularra](#).
- LH4: Hiru eguneko egonaldia Lizarrara. Maiatzak 22-24. [Zirkularra](#).
- LH4: Heziketa afektibo sexualeko saioak. Maiatzak 16.
- LH5: Hiru eguneko egonaldia Allora. Maiatzak 22-24. [Zirkularra](#).
- LH5: Heziketa afektibo sexualeko saioak. Maiatzak 15.
- LH6: Hiru eguneko egonaldia Zuhatzara. Maiatzak 22-24. [Zirkularra](#).
- LH6B: GUREAken bisita goizean. Maiatzak 15.
- LH6-BATX1: Gailu digitalak 24/25 ikasturtean. [Zirkularra](#).
- DBH3: Heziketa afektibo sexuala. Maiatzak 16.
- BATX1: 3. ebaluazioko azterketak. Maiatzak 9-15.
- BATX1-2: Euskarazko C1 ikastaroak udan. [Info+](#).
- BATX2: Ohiko deialdiko azterketak. Maiatzak 9-15.
- BATX2: Ohiko deialdiko buletinak Alexian ikusgai. Maiatzak 17, 15:00.
- Eskola Kirola: 21. jardunaldia. A eta B.



ZURRIOLA IKASTOLA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

IZEN-EMATEA 2024-25

GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOA ETA IRAKASKUNITZA
"Hartu kirolaren olatua, izan nahi duzuna!"



@zurriolaartebatzilergoa

